

Goien mitarra

346. zenbakia 2008ko irailak 5

Joanes Aierbe

ORDIZIAKO ERRUGBI KAPITAINA



*Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna*

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 17

Izen ematea

Irailaren 8tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria

8. zenbakia zure esku

Joxan Ormazabal



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Euskara txukuntzen: Denetik XII.

5. Ingurugiro txokoa: EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (IV).

6. Aholkua: Udazkeneko joera berriak

8. Elkarrizketa: Joanes Aierbe, ordiziako errugbiko kapitaina.

14. Elkarrizketa: Milkshake musika taldea.

18. Goierritar berriak: Iovo Petrov bulgariarra.

20. Erreportajea: Espezien mundua.

23. Non zer.

30. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Denetik (XII)

Maizpide
euskaltegia

“Ongi etorriak, koadrila!”

Erne, lagunok, duela urte batzuetatik hona izenburukoa bezalakoak uste baino maizago esaten ditugu-eta!

Ongi etorria eta *ongi etorriak* oso berriak dira gure artean eta bistan da, gainera, zergatik sortu diren: gaztelaniaz bezala, *bienvenido* eta *bienvenidos*, singularra eta plurala bereiziz esanez gero, hobeto esana dagoelakoan. Hobe beharrez ari garelakoan, to erdarakada galanta!

Hasierako agurra edo diosala egiteko (urrutitik etorria kalean ikustean edo etxean hartzean, nahiz bakarra izan, nahiz taldea izan) **ongi etorri** erabili behar dugu.

✗ *Ongi etorria gure etxera, Jokin!* (oker).

✗ *Ongi etorriak gure etxera, koadrila!* (oker).

✓ *Ongi etorri gure etxera, Jokin* (zuzen).

✓ *Ongi etorri gure etxera, koadrila!* (zuzen).

Garbi gera dadila diosalari buruz ari garela, ondorengo bezalako esaldiak txukunak baino txukunagoak baitira:

✓ *Lehengoa ongi etorria egin zieten herriko plazan Alaitzi eta Iboni* (zuzen).

✗ *Lehengoa ongi etorri egin zieten herriko plazan Alaitzi eta Iboni* (oker).

Esango ote digu? / esango ahal digu!

Ez dakigu zergatik, baina jende askok nahastu egiten ditu. Hobeto esanda, bigarrenaren erabili behar denean, horren orde lehenaren erabiltzen du. Jakina, ez dira berdinak, hau da, ez dute esanahi bera, ez dute balio bera.



Hain dotore
jantzi eta gero,
Joxepa mixinak
egingo didan ongi
etorria ahaztezina
izango ahal da!

Gorri katarra, dotore baino dotoreago...

OTE:

Duda edo zalantza adierazteko erabiltzen dugu eta **galde-ra** da! Askotan, gainera, ez dugu erantzunik espero, eta geure buruari ere horrela galdetzen diogu.

✓ *Gaur ere elurra izango ote dugu?* (zuzen).

✓ *Egin ote dute amonak agindutakoa?* (zuzen).

✓ *Ba ote daki gaur zortzietan joatekoak garela?* (zuzen).

AHAL:

Esanahi ugari du eta ez gara banan-banan aztertzen hasiko, baina **esango abal digu!** diogunean, desioa ari gara adierazten, horrela gertatzea nahiko genukeela, alegia. Etorriko joango, hartuko, egingo... formak erabiliko ditugu.

✓ *Gaur ez abal du elurrik egingo! Bestela jai dugu, lagunok!* (zuzen).

✓ *Hilko abal baiz, alu madarikatua!* (zuzen).

✓ *Gaundituko abal duzue azterketa! Urte osoan ikasi eta ikasi aritu zarete-eta...* (zuzen).

✗ *Gaur ez ote du elurrik egingo! Bestela jai dugu, lagunok!* (oker).

“Hitzaldia eta gero”

Erne, irakurle maiteok! Izenburukoa bezalakoak ez dira zuzenak! **Eta gero** aditzaren ondoren jarri behar dugu!

✗ *Hamabost urte eta gero, hau!* (oker).

✓ *Hamabost urte pasa eta gero, hau!* (zuzen).

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Pelikula eta gero, tabernara joango gara.
2. Errekak ez ote du gainezka egingo!
3. Ongi etorriak munduko sukaldari onenaren etxera!
4. Bazkaldu eta gero, Tolosako Beotibar pilotalekura joan ginen pilota-partida ikustera.

OHARRA: lehenengoan, *Pelikula bukatu eta gero* behar du; bigarrenaren, *errekak ez abal du gainezka egingo!*; hirugarrenaren, *ongi etorri*; laugarrena zuzena da.



euler
bombas sumergibles

Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

IÑAKI ARIN aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

EAEko espezie exotiko inbaditzaileak (IV)

Muskuilu zebra

(*Dreissena polymorpha*)

Itxura: Ur gezeko molusku bibalboa da. Bere ksku triangeluarren kolorea zebrek dutenaren berdinak dira.

Jatorria: Kaspio Itsasoa eta Itsaso Beltza.

Historia eta hedapena: Animalia hau XIX. mendean hasi zen Europa Ekialdeko ibaietan zabaltzen, nabigazioaren ondorioz, itsasontzien kaskoan itsasteko duten gaitasunari esker. Gaur egun Ebroko arro osoan zehar hedatzen ari da.



Ondorio negatiboak:

- Bertako espezieak batzertzen ditu.
- Haitzak, ibaiertzeko berezko landaredia, bertako bibalboen kskuak eta abar bezalako sustratuak tapizatu ditzakete.
- Ekonomian eragina izan dezake, hodi, kaineria eta abar itxi baititzake.
- Metal astunen iragazleak dira, eta ondorioz, hauek ka-tea trofikoan sartzen dira.

Karramarro amerikarra

(*Procambarus clarkii*)

Itxura: Ibaietako karramarroa da, kolore aldakorra duena, gorrixkatik grisurdinxkara artean. Buru zorrotza eta pintza arantzatsuak dauzka. Aphanomyces astaci onddoaren eramaile osasuntsua da.

Jatorria: Mexikoko Iparmendebalde, eta Estatu Batuetako erdialdea eta hegoaldea.

Historia eta hedapena: Espezie hau 30. hamarkadan sartu zuten Europan merkataritzarako asmoekin, baina Iberiar Penintsulan ez zen izurriterik egon 70. ha-



markadara arte, Guadalkibir Behekoko granja batera ekarri zutenera arte. Granjatik ihes egin zuten, eta gaur egun penintsula osoan zehar sakabanatuta dago.

Ondorio negatiboak:

- Katea trofikoa aldatu dezake.
- Zuloak egiteko ohitura dela eta, ingurua fisikoki eraldatu dezake.
- Animalia aseztina da, eta ondorioz, arrain eta anfibio batzuk kaltetuak izan daitezke.
- Afanomikosiaren eramaile osasuntsua da, bertako karramaroarentzat hilgarria.

JAKIN BEHARREKOAK

Bilboko Zorrotza auzoan 84 etxebizitza ekojasangarri, 2011. urterako egingo dituzte. Babes ofizialeko etxeak izango dira eta 35 urte beharako gazteentzako alokairuan jarriko dituzte. Energia aurrezteko neurriak izango ditu, hegoaldera begira, fatxadako pareta isolamendu akustikoarekin, eguzki panelak eta abar.

Irabazi handiko enpresek kutsatzen dute gehien. Euskal Herriko ia 200 enpresek gainditu zuten 2006. urtean Europar Batasunak ezarritako kutsadura mugak, argitaratu berri den E-PRTR inbentarioaren arabera, bereziki aire kutsadura mugak ez dira errespetatzen.

El Salvador Intervida, gobernuz kanpoko erakundeak, 'Ingurugiroaren erabilpen jasangarriaren' proiektuengatik saria jaso du. Amerikako herrialde honetako gobernuak emaniko saritutako programak komunitateen garapenean ingurugiroan duten eragina kontutan hartzen du. 'Ingurugiroaren erabilpen jasangarria' eta 'komunitateen garapena' proiektuek sentsibilizazioa, hezkuntza eta energia berriztagarrien erabilpena bultzatzen dute.

Ibaialde monografikoak - Hezkuntza eta Ingurumen Sailak

Udazkenerako joera berriak

AHOLKUA

Orokorrean era askotako altzariak eramaten direla esan dezakegu. Hauen barnean joera bideratzen duten pieza eta elementu batzuetaz jardungo dugu oraingo aholkuan.

Altzariak

Tankera modernoko ingurunean joera zera da: marra zuzeneko diseinuei pieza zeharo ezberdin bat kontrajartzea linealtasun itxura eta monotoni isla gutxitzeko (garaiko aulki edo butaka bat ipintzea, barroko estilo-ko paper bat horman, objektu retro bat...)

Eremu eklektiko batean

egurrezko altzariak bideratzen dute tendentzia. Diseinu garbiko altzariak bukaera natural eta itxura zahartuarekin. Inongo estaldura distiratsurik gabe.

Eremu honetan ere sartu ditzakegu industrial tankerako altzariak. Hau da metalez eginiko ontzitegi, aulki, mahai eta abar.

Koloreak

Kolore aldetik, zuriak jarraitzen du nagusi. Konbinaketan zuri-beltza da jaun eta jabe. Halere zenbait kolore eta kontraste berreskuratzen ari dira. Batetik kolore ilunak eta neutroak izan

arren nagusi, tonalitate aukera zabaltzen da. Moreak, lilak baina zikin itxura balute bezala. Bestetik urdina zertxobait berpizten da. Ez edozein urdin tonalitate zehatz batean. Azkenik gorriak, berdeak eta fuksiak sendo jarraitzen dute osagarri bezala.

Barne diseinuari dago-kionez, beira, egur naturala eta arbelaren nagusitasunaren ondoan joera berri bat dator indartsu. Horma egurrez estaltzen da eta (DM) ildaska batzuez jantzi ondoren bukaera lakatu bat ematen zaio eragin freskagarri eta dotore bat lortuz.



Nekane Eskisabel
Atari dekorazioa
Lazkao

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

ANDRAITZ
Fisioterapia Zentroa

Errehabilitazioa
Masaje terapeutikoa
Kirol masajeak
Lunbaldiak eta ziataldiak
Drenaje linfatikoa
Kinesiologia

Naiara Gómez Larrea
Kol.zkia.: 1466

Ordutegia:
astelehentik
ostiralera
9:00 - 13:00
15:00 - 20:00

Andraitz kalea, 2 ezk. ZEGAMA Tel.: 943 80 15 32

A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Karelean



Kokein



Saioa Abarlotz



Txuma Murugarren

**konzertuak
22:00etan
hasiko dira
D'elikatuz
zentroan**

Urriak 24:

Kantu-afaria Kuxkuxtu txarangarekin eta ondoren euskal abestien bertsioen kontzertua

laguntzaileak:

Ampo Ordizia

Rugby taldeko kapitaina

Joanes Aierbe:
“Profesionalizazioa
sartzen ari denez,
beste intentsitate
batekin jokatzeko da”



Joanes Aierbe ordiziarra 14 urte zituenetik dabil errugbian. Maila ezberdinetan ibili da eta gaur egun Ohorezko mailan jokatzeko du. Azken 10 urteetan, bera da Ordizia taldeko kapitaina. Errugbiaren goren maila ezagutzen

du. Irailaren 14an hasiko dute denboraldi berria, Trevijanoren, iazko txapelaren aurka, El Salvadorren aurka. Denboraldia lasaia izango delakoan, errugbiaren goren maila eta denboraldi berriari buruz aritu gara ordiziarrekin.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Iraillean 3. denboraldia hasiko duzue Ohorezko Mailan. Goren mailan zaudetenetik asko aldatu al da errugbia zuentzat?

Guri beharbada ez zaigu hainbeste aldatu. Ikusten ari dena da, beste taldeetan profesionalizazioa sartzen ari dela poliki-poliki. Diru iturriak handitzen ari dira eta jendea eskusiboki hortara dedikatzen da. Baina gu gauden tokian gaude, herri txiki bat gara, eta nahiz eta atzerritar batzuen laguntza eduki, eta horiek bai egon erdiprofesionalki, gainontzeko denok gure lanbideak dauzkagu. Gustukoa dugulako jokatzen dugu.

Profesionalizazioa dela eta, taldeen artean gero eta diferentzia handiagoak al daude?

Bai, nik uste dut lau bat talde badaudela, hor goian, Salvador, CRC-Madrid, Valladolideko beste talde bat... horiek atzerritar onak dituzte eta bertakoak ere dedikazioarekin, eta nabaritzen da.

Ordiziara iritsiko al da profesionalizaziorik? Iru-dikatzen al duzu?

Orain ari dira aztertzen Liga Iberika bat jokatuko ote den Gibraltar, Espainia eta Portugalgo taldeen artean. Lehen aipatu ditudan talde horiek horren atzetik dabil-tza eta uste dut izango dela, beraiei diru iturriak handitu egingo litzaizkielako. Telebista sartuko litzatekeelako, sponsorrak ere indartsuagoak izango liratekeelako...

Gure kluba planteatuta dagoen bezala ez dakit horretara ailegatuko den, baina garbi dago hor goian jarraitu nahi baldin badugu, datorrenari eutsi egin beharko zaiola eta tokatzen baldin bada, ni ez nintzateke ukatuko urtebete edo bi, hortik bizitzera. Baina ez dakit, momentuz horrela segitu beharko dugu.

Aurreko denboraldian, justu samar ibili zineten.

“Gorpuzkera asko aladatu da”

Jokatzeko modua aldatzen al da Ohorezko Mailan?

Profesionalizazioa sartzen den momentutik, jendeak askoz ere denbora gehiago dauka entrenatzeko eta gorpuzka lantzeko. Taldeko entrenatzaileak edo arduradunek ere, jokalaria horiei extra bat eska diezaike. Ez da guri bezala. Guk gustatzen zaigulako jokatzen dugu, astean lau aldiz entrenatzen dugu eta entrenatzaileak esango du: zer eskatu behar diot gehiago mutiko honi. Baina soldata bat ordaintzen dizue-tenean, gehiago eskatu diezai-zuekete. Eta entrenamen-du horien ondoren, joko azkarragoa, intentsuagoa dator, gorpuzkerak erabat aldatzen dira... Ikusi besterik ez dago telebistan ematen dituzten beste partidu horietan. Hamar urte atzera egiten baduzu, gorpuzkeretan bakarrik alde handia dago. Orain askoz ere muskulatuagoak daude, askoz landuagoak daude gorpuzkak. Beste intentsitate batekin jokatzen da. Hemen ere poliki-poliki ari zaio buelta hori ematen.



Azkenean, mailari eustea lortu zenuten.

Iaz, eta aurrekoan ere bai. Zaila dago. Aurten ere gure erronka, mantentzea izango da. Lehen aipatu dudana bezala: guk aurten bost edo sei atzerritar izan ditugu baina gure filosofia, izango litzateke, etxekoei edo ingurukoei indarra eman eta gozatzea, eta atzerritar kopuru hori gutxitzen joatea. Baina beste talde batzuk ez daukate horretan erreparo-

rik eta behar dituztenak ekartzen dituzte, beraien helburuak betetzeko, eta horiek betetzeko ahalegin guztiak egiten dituzte modu batera edo bestera.

Bi urte egin ditugu, hirugarrena ere jokatuko dugu eta datorrena datorrela. Saiatuko gara hor segitzen.

Kanpoko jokalariai aipatu dituzu. Horien ekarpena nabari al da taldean?

Ailegatu zen momentu bat, kanpotik dakarkigunak,

maila handiago emango zuena izan behar zuela, etxeko batek baino gehiago emango duena. Horrela ere etxeko bati atea ixten ari zara beharbada, baina izan dadila behintzat maila jakin bateko jokalaria eta maila eman dezala.

Nik uste dut iaz etorri zirenekin asmatu genuela. Aurten nahiz eta iazko denak ez diren etorriko, kanpotarrekin asmatzea espero dugu.

Hor ere denetik izan duzue, ezta?

Bai. Gertatzen dena da, esan dugun bezala, beste taldeetan profesionalizazioa sartu den bezala, zuzendaritza aldetik ere bai, beste taldeek abantaila handia ateratzen digute. Eta bai gu ha-

Errugbi talde batzuetan
profesionalizazioa sartzen ari da
poliki-poliki.



rrapatu gintuela hasiera batean, golpetik, igoera edo errugbi mailak zekarren al-daketa horiek. Bai jokalariei eta bai zuzendaritzari. Rea-lari gertatzen zaio, ustez ona dela eta ez du asma-tzen, jende profesionala edukita... zer esango dizut gure kasuan; normala da denetan ez asmatzea.

Zer moduzko harremana dago kanpotik etorritako jokalariekin? Taldearen giroan zerikusirik izan al du?

Beti ere batzuek errazago onartzen dute, beste batzuek ez. Gorabeherak egoten dira. Baina nik uste dut beraiek ere saiatzen direla taldera ahal duten modura egokitzen eta guk ere gure mugekin, hizkuntza dela eta, nahiko lan izaten dugula. Baina jokoan ez dago as-

ko hizketan egin beharrik eta partiduaren ondoren, garagardo batzuk hartuta, dena errazago izaten da.

Oraindik ere mantentzen duzue beraz, partidu ondorengo parrandatxoa.

Bai. Nik uste dut, hori dela, hainbeste urteetan, jendeak jarraitzeko motiboetariko bat. Ez da jokatzeari bakarrik. Zerbait gehiago ere badago

eta horrek lotzen gaitu pix-ka bat gehiago.

Eta harrobia zer moduz, ondo zaintzen al duzue...

Urte batzuk egon dira nahi-koa utzita egon dena eta orain ari gara ordaintzen utzikeria horiek. Horregatik dauzkagu 6 atzerritar. Orain dela urte batzutatik hona, azkeneko bost urteetan, igual 4 mutiko igoko ziren.

Urte batzuk egin ez dena, orain ari da nabaritzen. Bi urte barru, baina arazoa konponduko da, egituratua dago Rugby eskolarekin. 18 urtera arteko mailaketa egi-na dago. Bi urte barru, tal-detxo bat igoko litzateke gora. Agian, denek ez dute jokatu Ohorezko Mailan baina 18-19 urtetik gorako-ek, Lehenengo mailan jokat-zeko aukera izango dute, edo bigarren mailan aritze-ko.

Errugbi eskola ere bada-go, haurrak errugbira gerturatzeko balioko du, ezta?

Hori da. Rugby eskolan da-biltzanek esaten dute, ga-rantzitsua izan zela gu Ohorezko Mailara igotzea. Komunikabideetan gehiago ateratzen gara, herri mailan ere jende gehiago joaten da

Hizkuntza dela eta, nahiko lan izaten
dugu. Baina jokoan ez dago asko hizketan
egin beharrik eta partiduaren ondoren,
garagardo batzuk hartuta,
dena errazago izaten da.

ikustera eta mutikoak ere errazago animatzen direla errugbian hastera. Eta ematen du ondo doala, eta horrela jarrai dezala.

Zaleak aldatu al dira? Ikusle gehiago, gutxiago... dituzue?

Guk alde horretatik ez daukagu inongo aitzakiarik. Lehenengo taldean 14 urte daramazkit eta tokatu izan zait, lehenengo mailan, Euskal Ligan jokatzeko genuenean, askoz ere zale gutxiago izatea. Trevijano ia hutsik egoten zen baina taldeak gora egin duen heinean, ikusi da zalego aldetik ere gora egin dela. Ez Ordiziako jendea bakarrik, Goierrikoa eta ingurukoa ere bai. Eibarko jendeak hemen jokatzeko duenez, Elorrioko batek ere bai... haien ingurukoak ere etorri egiten dira. Zalegoak gora egin du. Askok. Oraintxe izango da Trevijano, zale gehien elkartzeko dituen zelaia eta hori eskertzekoa da.

Askok gogoratzen al zarete Ohorezko Ligara igo zirenetan partidua hartaz?

Nik uste dut partidua hark, errugbiaren historian txoko bat egin zuela. Hainbeste jende ez zela elkartu sekula, eguraldia ere oso txarra egin zuen, euri asko... baina lortu genuen, denontzat festa bat izan zen, eta egun polita izan zen.

Aurten oraindik Trevijanoren jokatu duzue. Datoren urtean non izango zarete? Nola dago gai hori?

zarete? Nola dago gai hori?

Azkenean Altamirako proiektua egin zen baina zelaia homologatu gabe dago errugbian jokatzeko. Eta hori homologatzen ez duten bitartean Trevijanoren jokatu beharko dugu. Eta homologatuta ere, ez dakit, bidaliko gaituzten, derrigortuko gaituzten Altamiran jokatzeko edo utziko diguten Trevijanoren jokatzeko. Entrenatu eta gehientsuena, Altamiran egiten dugu, Trevijanori atsedena komeni zaio-lako. Entrenamendu guztiak Trevijanoren eginez gero, dezente hondatzen da zelaia. Baina guri gustatuko litzazuke Trevijanoren jarraitzea. Badauka bere xarma edo zaleen gertutasuna, beldar naturala izateaz aparte. Horretaz gain, azkenean, Trevijanoren gu bakarrik gauden, nahi dugunean entrenatzen dugu, inori konturik eskatu gabe. Igual pribilegiatu batzuk izango ginateke baina behin Altamirara joanda, besteen ordutegiak begiratzen hasi beharko ginateke. Baina ez dakit zer gertatuko den. Badirudi, interesak badaudela gu Altamirara bidaltzeko. Justifikatu egin beharko da Altamiran egin den obra hori dena, azkenean CAFeko lurrak dira eta beti esan izan da CAFek edozein momentutan eskatuko dituela hor horiek, prekarioan gaude-lako...

Denboraldi berria

Denboraldi berria irailaren 14an hasiko badute ere, abuztuaren erdialdean hasi zuten aurre denboraldia. "Azkenean partidua, apirilaren 13an jokatu genuen talde bezala. Nahiz eta talde bezala abuztuaren hasi, norberak jarraitzen du puntuak mantentzen. Gimnasioan, korrika pixka bat egin... bestela gogorra egiten da oso buelta", argitu du Joanes Aierbek.

Talde berrituta etorriko da. Kirol zuzendaria izango dute, Jim Dixon. Atzeritarrei dagokionean, taldea indartzera, bost gizon etorri dira: James Watkins galesa, Toman Parker ingelesa eta Zelanda Berriko Gam Gray, Phil Huxford eta William White.

Nola ikusten duzue hurrengo denboraldia? Zein helburu duzue?

Mantentzea izango da helburua. Gero, datorrena etorriko da. Mantentzearekin, nahiz eta helburu apala izan, nik uste dut, guretat nahikoa izango dela. Aukeran iaz baino samurrago izanez gero hobe. Iaz oso nekoso izan zen. Psikologikoki oso nekatuta bukatu nuen. Jakin irabazi beharra daukazula, eta nahiz eta irabazi besteak irabazi, eta benga eta benga... beti irabaztera behartuta... azkenean nekatuta bukatu genuen.

Partiduen artean, atsedena izaten dituzue, askotan luze ere izango da horrelako egoera batean, ezta?

Batzutan ondo datorkizu jendea mina hartuta baldin badago, baina beste batzutan luze egiten da zain egote hori. Ondo atera bazaizu, errazago eramaten da. Baina gaizki atera bazaizu aurreko partida eta konpontzeko hiru aste zain egon behar baldin bazara, oso luze egiten da. Aurten egutegia ez dakit nola izango den. 12 talde baldin bagoaude, tarte horiek gutxitu egingo dira.

Futbol Liga lehenago hasiko da beraz.

Aurten eman duten tabarrarekin gainera! Beti gure gainetik egongo da eta beti gu baino gehiago izango dira.

Alde horretatik, baloratuak sentitzen al zarete? Ohorezko maila batean zaudeten taldea izatea baloratzen al da? Reala baino gorago zaudete adibidez.

Ezin gara futbolarekin konparatu. Azkenean, kirol minoritarioa da. Azken urteetan afizio handia sortu da eta jarraipen dezentekoa daukagu. Adibide bat: gu Ohorezko Mailara igotzea eta futboleko taldea Hirugarren mailara igotzea paretsukoa izan da.

- ✗ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✗ Komunitateen kontabilitatea
- ✗ Akten idazketa
- ✗ Aurrekontuen eskaera
- ✗ Aholkularitza legala
- ✗ e.a.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

xetai

nafarroa etorbidea 1

20200 beasain gipuzkoa

www.xetai.net



Ampo-Ordizia Rugby taldeko kapitaina

Noiztik zabiltza errugbian?

14 urterekin hasi nintzen. 14. denboraldia egin behar dut handien taldearekin. 31 urte ditut.

Nolatan aukeratu zenuen kirol hau?

Nik uste dut gehientsuenak bezala: errebotean. Futbole-an aritzen nintzen lagunekin Ikastolan eta Ordiziako futbol taldean aprobak egin nituen eta ez ninduten hartu. Eta etxean esan zidaten, kirolen bat egin beharrean nengoela. Eta errugbira joan nintzen eta hementxe nago, oso gustura.

Aukerarik izango bazenu beste talderen batera profesional joateko...

31 urterekin ez dut uste aukera hori etorriko zaidanik baina polita izango litzateke. Norbait etorriko balitzait eta eskaintza on bat egingo balit, igual planteatuko nuke, lanean eszedentzia eskatu eta joango nintzateke. Batez ere, ikustegatik, zer den hortik bizi eta gozatzen duzun bitartean soldata bat atera. Baina oso zaila da.

Ordizia Errugbi taldeko kapitaina zara. Noiztik? Zein ezaugarri behar du kapitainak?

10 bat urte izango dira. Entrenatzailearen kontua izaten da eta jarrera kontua

izango da. Entrenamenduetan, partiduetan jartzen den jarrera. Azkenean, lider papera da. Jendeak ikusi dezala honek aurrera egiten badu nik zergatik ez.

Ohorea edo 'marroia' izaten da?

Denetik pixka bat. Ohore handi bat, ikustea jendeak estimatzen zaituela eta jendeak jarraitzen zaituela. Baina beste batzuetan, 'marroi' galanta. Zure ondokoari, daukana eta pixka bat gehiago eman dezala eskatu behar diozu. Igual horregatik bukatu nuen nekatuta, beti tentsioa edo intentsitatea eskatzen, aldagelan jendeari burua berotzen... Psikologo lan pixka bat egiten azkenean. Gustura, baina nekosoa ere bada.

Partidu aurreko momentu hori aldageletan berezia izaten da. Batzutan erdi bromatan, esaten dugu, gladiadore kontu bat: pertsona normal bat izan eta gero zirkora ateratzen zarenean,



edo zuk ematen duzu edo emango egingo dizue. Pertsonaren aldaketa hori, momentu delikatu da eta momentu horietan jendea zirikatzeara tokatzen zait, Axio-ren laguntzarekin.

Zein postutan jokatzeko duzu?

Orain talonador edo orpokatzaile. Meleren lehenengo ilaran, erdian jarri eta taldekideak baloia barrura sartzen dutenean baloia atzera bidali eta 'touchetan', albo-ko sakeetan, baloia atera. Orain dela bi urtera arte hirugarren lerroan jokatzearitu nintzen baina poliki-poliki aurreratzen ari naiz.

Zein ezaugarri behar dira errugbian jokatzeko?

Errugbiak daukan gauza onetariko bat da bariedade handia dagoela jokalaria batetik bestera. Ia denontzako dago lekutxo bat. Txikitok, azkarra, handiak, potoloak edo indartsuak, beraien lekutxo izaten dute eta alde horretatik ondo dago, ez da estereotipo jakin bat eduki behar errugbilari izateko.



Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

**Bertako produktuekin
egindako
gosari osasungarriak**



**Sanperio kalea
ORDIZIA**

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

08-09 IKASTURTEA

WANTED



- 16 urtetik gorakoa
- Gizona edo emakumea
- Bertakoa edo kanpokoa
- Ikaslea, langilea, langabea edo jubilatua
- Eta... **euskara** ikasteko gogo, borondate edo behararekin

UDAL
EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

- ★ Euskalduntzeko maila guztiak, EGA eta alfabetatzea tutorearekin
- ★ Astean 6 eta 10 orduko ikastaroak
- ★ Gurasoentzako ikastaroak
- ★ Autoikaskuntza sistema tutorearekin
- ★ Mintzalaguna
- ★ Azterketen prestaketa: (EGA, Osakidetza, Administraziozko hizkuntz eskakizunak, HABEren titulua)
- ★ Euskaltegian bertan titulu ofiziala lortzeko aukera ere badaukazu: 1. maila, 2. maila eta 3. mailako tituluak

Matrikula epea:
Irailaren 1etik 24ra bitartean

Bulego ordutegia:
Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00

★ **MATRIKULA ZABALIK** ★

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA


Loinazko San Martin plaza
Tel.: 943 02 81 00
zuzendaritza@beasain.net

Milkshake



Milkshake edo esne-irabitua euskaraz. Imanol Erauskin zaldibiarak eta Julen Ormaetxea, Koldo Amundarain eta Pablo Sanchez ordiziarrek osatzen dute Milkshake. 2004an sortu zen taldea eta 2008an kaleratuko dute

beraien lehen diskoa: 'Irradiazioa'. Musikaren egoera kritika, gogoeta, hausnarke... disko kontzeptuala egin dute. "Disko freskoa" dela diote. Taldekide baten ikasketak direla medio, geldiu netxoa egingo du Milkshakek.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarkeak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

Julen Ormaetxea, ordiziarra gitarra; Imanol Erauskin zaldibiarra, ahotsa; Koldo Amondarain ordiziarra, baxua; eta Pablo Sanchez ordiziar bateria jotzailea. Lau lagunek osatzen dute Milkshake taldea. 2004an sortutako taldea da "gutxi gorabehera. Lehen beste talde batzutan jotzen genuen eta bi talde asko ibiltzen ginen batera" eta 'Irradiazioa' diskoa atera berria dute. Irailean, ikasketengatik Julen Eskoziara doanez, geldiunea egingo du Milkshake-ren musikak.

Beasaingo Antzizar kiroldegian duten lokalean egin dugu hitzordua. Taldea elkartzea asko kostatzen omen zaie eta gu ere horren lekuko izan gara. Julen eta Imanol azaldu dira lehenengo. Koldo beranduxeago etorri da eta Pablo, azkenean, ez da azaldu.

Ordu asko sartzen al dituzue lokalean?

Imanol: Behar direnak baino gutxiago. Ahal direnak. Lauak elkartzea oso zaila izaten da lana eta ikasketak direla eta. Gehiago sartzea ondo egongo litzateke.

Julen: Talde bat ateratzeko beharrezkoa izango litzateke, baina Euskadin ez dago maila handirik. Beraz, pixka bat eginda, nahikoa da.

Imanol: Denbora asko daramagu elkarrekin joaz.

Taldea sortu eta lau urtera iritsi da diskoa. Momentu egokia aurkitu al duzue?

Julen: Hasi eta segituan maketa atera genuen. Hasiieran izugarritzko gogoarekin geunden. Eta arrakasta txiki bat izan genuen hemen inguruan. Baina gero fundamentua galtzen joan ginen. Kanta pila bat ateratzen genituen lokalean baina ez genuen fundamentuzko ezer egiten. Ez genuen grabatzen... Beste talde batzuk bidea irekitzen ari ziren eta gu geldituta ari ginen gelditzen. Iaz



Zuen diskoa saltzea dagokizue. Nola deskribatuko zenukete?

Koldo: Diskoak berak bakarrik saldu beharra dauka, nahiz eta guk ez dakit zer esan... Entzun egin behar da.

Imanol: 12 kanta ditu. Estilo ezberdinetakoak.

Julen: Gu garena da. Duela urtebete grabatu genuen diskoa eta momentu hartan gu garena da diskoa. Ez da kopia bat, edo izan nahiko genukeena. Txarrerako eta onerako, gu garena da.

Kantak oso ezberdinak dira. Kanta guztiak gustatuko zaizkion inor ez da egongo. Musika sentimenduak adierazteko tresna bat baldin bada, ezin dira 12 kanta berdinekin egin, beti ez baikara egoera berdinean egoten. Letretan esaten duguna, guk pentsatzen duguna da. Ez dugu inolako panfletorik egin.

Zeri buruzko hitzak dira?

Julen: Musikari buruzkoak. Disko kontzeptual bat egin dugu. Ideia bati buruz doa diskoa guztia. Lehenengo 10 kantak, musikaren egoera kontatzen dugu, ikuspuntu ezberdinetatik.

Imanol: Batzuk zuzenagoak dira eta beste batzuk metaforikoagoak.

Kritikak edo zer dira?

Julen: Denetik. Kritikak, deskribapenak...

Koldo: Gure ikuspegitik, jakina.

Julen: Azkeneko kanta, akustikarekin jotako kanta da eta musikak hitz egiten du lehenengo pertsonan. Lehen komentatu diren arazo guztiak komentatzen ditugu eta azkenean musikak, gogoeta bat egiten du.

Diskoaren izena, 'Irradiazioa' da. Zer da irradiazioa?

Imanol: Hitz joko bat da, irratia eta erradiazioaren arteko hitz jokoa. Irratiak botatzen duen erradiazioa. Irradiazioa I eta II kanta daude. Zentzu horretan idatzita dago letra.

Kantak, letrak, musika... nola idazten dituzue?

Julen: Disko honetan letrak banatu egin ditugu. Lehen Imanolek egiten zituen beti. Kanta gehienak, hilabete eta erdian egin genituen.

Imanol: Poeta txarra naiz eta kosta egiten zait idaztea.

Julen: Kanta bat egiten dugunean, letra nork egin erabakitzen dugu. Gero denon artean egokitzen ditugu.

Imanol: Lehenengo musika eta doinuak egiten ditugu eta gero letrak.

Julen: Inoiz egin ez duguna da, letra batetik kanta bat egin.



Goierriin, musikaren mugimendurik badago... zein egoera dago...

Koldo: Dagoena, punka da.

Julen: Goierriin historikoki ez da talde famatu askorik egon. Potrotaino, Izurri... ez da askorik egon, eta orain ere ez. Koldok esan duen bezala, punki mugimendua dago hemen, gaztea jendea punkak mugitzen du eta hemen (Antzizar kiroldegiko lokaletan) talde asko daude. Edozein arratsaldetan etortzen zara eta egiten den musika punkia edo metala da. Euskadin kaña sartu behar da. Ildo horretatik ateratzen denak, ez du ezer jaten. Ez dago mugimendu bat.

Imanol: Kontzertuak egon badaude baina dau-den gutxiak, kanpokoak gehiago dira he-mengoak baino. Noizbehinka jotzen du-gu.

Julen: Donostia eta Orereta alde-an beste mugimendu bat dago. Taldeak elkartu egiten dira kontzertuak lotzeko.

Imanol: Ordizia-rock dago, talde-en artean sor-tutakoa.

esan genuen, edo serio har-tzen dugu hau edo planteatzen dugu lokalera denbora pasa etortzea.

Imanol: Bi aukera zeuden: denbora pasa bezala har-tzea edo serioxeago hartu, lana egitea, antolatuago eta emaitzak ikustea. Aurretik pasatzen ari zena zen, kan-ta pila bat ateratzen geni-tuela lokalean baina ez ge-nituen grabatzen eta denbo-ra pasa eta pasa, kantez as-pertu eta hor gelditzen zi-ren airean inon grabatu ga-be. Beraz, 2007an lokalean sartu ginen, kankak egin eta segituan, grabatu egin ge-nuen.

Mikel Kazalisekin hitz egin genuen, Anestesia eta Negu Gorriak zeneko ba-xua, eta berarekin graba-tzen hasi ginen. Iazko urrian hasi ginen berarekin grabatzen. Abendura bitar-

tean grabatu genuen. Na-hasketak abar, urtarrilean atera zen.

Diskoarekin motibatu egin zarete beraz, serioa-go hartu duzue musika.

Imanol: Ultimatum bezala hartuta, serioago aritu gara. Grabatzeko data hartuta ge-neukan, beraz, kankak egin behar ziren.

Julen: Helburu bezala har-tu genuen. Estudioa kontra-tatu egiten da eta egin be-harra zegoen.

Gustura gelditu zarete diskoarekin?

Imanol: Grabaketarekin gustura gaude. Mikel Anes-tesiak oso ondo grabatzen du. Grabatzeko modua ere gustatu zaigu, gustura zau-de grabatuz. Kankak hobeto jota egon zitezkeela? Bai, egon zitezkeen, baina ondo daude, gustura gaude.

Julen: Gu behintzat emo-

zionatuta gaude.

Estudiokoa nolako espe-rientzia izan da?

Julen: Maketa eta diskoa grabatu ditugu eta justu bi planteamendu kontrakoak izan dira. Maketa izan zen, asteburua hartu eta 12 ordu baino gehiago sartu. Orain berriz, hilabete batean, egu-nero bi edo hiru ordu sar-tzen genituen, guk ahal ge-nuenean, asteburuetan libre izaten genuen.

Imanol: Nazkatu gabe. As-pertu edo nekatzen hasita-koan, utzi egiten genuen. Gehiago gustatu zaigu me-todo hau, askoz ere gehia-go.

Julen: Diskoan hor geldit-tzen da, zu nola zauden. Nazkatuta baldin bazaude, musika tresnetan nabaritu egiten da, eta ahotsean oraindik gehiago. Gustura baldin bazaude, sentimentu

txiki hori hor geldituko da.

Mikelek esan zigun ga-rrantzitsuagoa zela makine-ria manejatzea baina, musi-kariak manejatzea eta gus-tura egotea. Eta hori izan da gehiena egin duena. Tratu gizatiarragoa izan da. Hu-rrengo batean ere joango ginateke.

Beste diskoren bat al da-bilkizue buruan?

Julen: Ez! Iaz Idiazabalgo pop-rock lehiaketa irabazi egin genuen eta saria zen, diskoa grabatzea. Hori hor daukagu. Otsailerako egin beharra daukagu. Ni kanpo-ra noa irailean, eta denbo-raz nahiko gaizki ibiliko ga-ra. Orain daukagu prestatu beharra.

Denboraz gaizki ibiliko garenez, antzekoa izango da diskoa, kantu berdintsuekin, baina teknoa, ba-kailaoa bezala. Beraz, tekni-

koen lana izango da.

Imanol: Kantu berriak egiteko denborarik ez daukagu.

Diskoa kaleratu duen diskoetxea dena den, Burgoskoa da, Fragment records.

Imanol: Diskoa grabatu genuenean, aritu ginen Euskal Herrian diskoetxe bila. Baina zaila zegoen.

Julen: Euskadin, den txikia-ekin, talde asko gaude, zirkuitua txikia da, merkatua saturatuta dago. Euskadiko diskoetxeek ez dute edozein taldegatik apustu egiten. Kanpora bidali dugu, Burgos, eta etxean baino hobeto tratatu gaituzte.

Koldo: Kasu gehiago egin digute behintzat.

Julen: Burgoskoa da baina delegazioak dauzka Euskadin, Katalunian, Hego Amerikan... Orain Euskadiko taldeak atera nahi dituzte.

Euskal Herrian zaila dago beraz.

Julen: Euskadin eta inguru guztian. Gauza jakina da, Euskadin eta mundu guztian, musikaren egoera ez dela ona. Multinazional handietan nabaritzen baldin bada, txikietan oraindik gehiago. Euskadin diskoetxe handi eta txikietara bidali dugu, esperantza txiki bat bagenuen egia esanda. Normalean, komentario positiboa egin digute denek, baina beteta zeukatela... gehienek hori esan digute behin-

Zuen ametsa:

Koldo: Gazte Topagunea batean, kontzertu handi batean jotzea.

Imanol: Kafe Antzokian joko nuke gustura.

Julen: Hemendik urte batzutura jendea gutaz gogoratzea. Kanta politak egitea.

Beste musika talderen erreferentziarik edo eraginik?

Koldo: Musika asko entzuten dugu eta askorena.

Julen: Nirvana esango nuke. Ez musikagatik, mentalitate-agatik baizik, ideologiagatik.

Koldo: Musikagatik ere bai.

Imanol: Nik uste ez dugula egiten, erreferentzia bat eduki eta erreferentzia horren antza edukitzera joan.

tzat. Batzuk entzun ere ez dute egin eh? *Pedegree* pixka bat eduki behar Gor eta horrelako diskoetxetara sartzeko. Etxean ez badizute ematen behar duzuna, kanpora joaten zara bilatzera, bizitzako arlo guztietan eta honetan ere bai.

Egia esanda, Euskadiko diskoetxe batek lagundu nahi zigun, Hirusta. Irungo diskoetxe txiki bat da, Sorotan Bele taldeko Mikel Razkinena. Diskoa gustatu zitzaion eta lagundu egin nahi zigun eta hitz eginda geunden, baina gaixotu egin zen.

Imanol: Diskoa ateratzea zaila dago. Autoekoiztu beharra dago.

Koldo: Orain modan dagoena bakoitzak bere lokalean, etxean edo ahal duen lekuan grabatu, berak atera, saldu eta kontzertuak jo.

Imanol: Kontzertuetarako abantaila txiki bat daukagu hemen, Gaztetxeengatik. Kontzertuak antolatzen di-

tuzte eta zertxobait gehiago jotzen dugu.

Julen: Baina kontzertuetara ez da inor joaten. Ez dago eszena bat. Betiko bost-sei talde famatu daude, orain dela 20 urtekoak, eta taldeak ez dait ateratzen. Kulpa ez dakit nork daukan. Uste dut denok daukagula. Baina Euskadi Gaztea bezalako emisore indartsuetan, ez dituzte taldeak jartzen, gero eta gutxiago gainera. Jendeak entzuten ez dituenek, ez ditu ezagutzen eta diskoetxeek, jendeak ezagutzen ez duenez, ez dituzte ateratzen...

Beste eszena bat bada, *underground* bezala, azpitik. Oso talde gutxi mugitzen du momentuz behintzat. Pentsatzen dut egoera irauliko dela, baina ez dakit zenbat denbora behar den. Talde pilo bat daude, baina jendea ez da mugitzen. Kontzertuetan, beste taldeetako jendea mugitzen da. Jendeak talde bat

ez badu ezagutzen, ez da joaten, oso jende gutxi dago kultura hori daukana, larunbat gauean egunkarian begiratu zer dagoen eta kontzertu bat ikustera joan. Egoera hau, denon kulpa da **Euskadi Gaztearen maketa lehiaketako Entzulearen saria irabazi zenuen, Idiazabalgo lehiaketa ere bai...**

Julen: Palmares txiki bat badaukagu. Baina Euskadi Gazteakoa, Entzuleen saria irabazi genuen, palmares bezala ondo dago baina... Sari hori desbirtuatuta dago. Ez du ezer esan nahi.

Imanol: Harreman gehiena duenak irabazten du sari hori.

Julen: Idiazabalgo udalak bai laguntzen duela. Izen pixka bat hartzen ari da gainera. Sari polita da gainera, diskoa ateratzen dute eta.

Izena aipatu duzue, izen berezia daukazue, Milkshake.

Imanol: Behin ikasiz gero, erraza da. Besterik gabe.

Julen: Nik uste dut izen bat ona dela, taldea ona baldin bada. Izena taldeak ematen dio.

Koldo: Izen onak mila egongo dira eta talde onak gutxiago. Ingeleseko talde ezagun askoren izenak hartzen dituzu, ingelesez ondo jotzen dute, baina itzuli eta esanahia entzuten duzue...

Julen: Izena gutxienekoa da.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



biok kudeaketa

fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12



LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 2/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Iovo Petrov bulgariarra

Ataunen bizi da eta Lazkaon lana egiten du argazkilariak



Iovo Petrov. 30 urte. Bulgariarra. Ataunen bizi da eta Lazkaon lan egiten du bere argazki dendan, duela ia biru urtetik. Aurretik Madrilén bizi izan zen. Bertan ezagutu zuen bere neska laguna, Aida beasaindarra. Turismoa egitera Goierriera etorri eta minutu batean bartu zuen Iovok erabakia: Goierri bizi nahi zuen.

Bulgariar gutxi ezagutzen ditu Iovo Petrovek Goierri. Beasainen, bospasei. "Gaur egun ia ez da jenderik ateratzen Bulgariatik, herrialdea pixka bat konpontzen ari delako. 1989ra arte, komunismoa egon zen. Klase ertaina ginen denok, ez ziguten kanpora ateratzen uzten, ez ziguten kanpoko mundua ezagutzen uzten... baina denok klase ertaina ginen eta familia guztiok geneukan oportetara mendira edo itsasora joateko aukera. Gero transizio urteak etorri ziren. 90eko hamarkadan, jende asko atera zen. Alemaniara, Espainiara... Komunismoa

bukatu zenean eta enpresak gaizki joaten zirenean, nire gurasoak lanik gabe gelditu ziren. 1991n etorri egin ziren, zeukaten diruarekin. Kotxea ere saldu genuen. Sevillan urtebete eginda, Madril joan ziren", azaldu digu Iovok. Anaia eta biak, Bulgarian gelditu ziren beraien ikasketak burutzen. Fisioterapia titulua atera zuen Bulgarian.

7 urte egin zituzten gurasoengandik banatuta. Behin ikasketak bukatuta, 1998an, Madril joan ziren anaia eta biak. "Ez nuen etorri nahi, ez nuen Bulgaria utzi nahi baina hainbeste urte gurasorik gabe, anaiak eta biok etortzea erabaki genuen. Oso egoterra zaila zegoen gazteontzat. Lanagatik gutxi ordaintzen zen. Sektore pribatua hasita

zegoen, baina oso gutxi zegoen. 7-8 urte pasatu ziren aldaketatik baina oso geldo zihuan dena. Eta politikoei, leku guztietan bezala, beraien buruari bakarrik pentsatzen zuten. Ez dute ezer egiten herriaren alde. Madril joan ginenean, 6-7 urte elkarrekin pasatu genuen familia osoak. Gure bizitzako garairik onena izan zen", aitortu du.

Zaletasuna ogibide

Madrilen bizi zela dena den, bere betiko zaletasunari heldu eta argazkilaritzan hasi zen lanean. Bere bikote laguna ere, Beasaingo Aida, argazkilaritzari esker ezagutu zuen.


Eta Aidari esker, duela lau urte, Goierri ezagutu zuen Iovok. "Duela lau urte Goierriera etorri ginen opo-

rretan, turismoa egitera, txirrinduak hartuta... Eta oso ondo. Ikaragarri gustatu zitzaidan eta hala esan nion: zu joan, ni ez naiz itzuliko. Nik hemen gelditu nahi nuen".

Dena gustatu omen zitzaion, "bulgariaren antz handia dauka eta. Usainak ere berdintsuak ziren: belar usaina, ximaurrerena ere bai... oso ezagunak egiten zitzaizkidan. Minutu batean erabaki nuen", gogoratu du Iovok.

Pentsatu, erabaki eta egin. "Madrilen lan finkoak genituen argazkilari bezala, dena utzi eta abenturara etorri ginen. Dirurik ez genuen... Baina Eusko Jaurlaritzari esker, emandako laguntzarekin, argazki denda ireki ahal izan dugu. Orain arte ordu asko sartu behar izan ditugu negozioa aurrera ateratzeko, baina oso pozik gaude", aitortu du bulgariarrak. Ordu asko sartu behar izaten dituzte lanean, negozioa aurrera ateratzeko. "Lan asko egin behar da, asko saiatu, hemengo jendea nahiko zorrotza de-

Bulgariaren antz handia dauka
Goierri. Belar usaina, ximaurrerena...
Paradisuen txokoa aurkitu dugu.



lako. Aldi berean, hori gustatu egiten zaigu. Oso ondo dago jendeak kalitatea eskatzea. Goierri jendeari kalitatea gustatzen zaio. Ondo egindako lana baloratzen da, lan guztietan. Kon-

petentzia handia dago argazkilaritzan. Argazkilari profesionalak ez diren asko daude, txapuzatxoak egiten”.

Madrildik Goierriara argazkilaritzan berrikuntzarik



Min bartuta zegoen txoria barrapatu zuen Iovok. Bere herrian, txoria barrapatzeak, zorte ona omen dakar.

Angelu ezberdina

Behin argazkilari batek esan zigun, Txindoki oso fotogenikoa zela. Ezagutzen al duzu Txindoki?

Bai, asko. Leku guztietatik dauzkat argazkiak eginda. Argazkirako gai ona da baina ikuspuntu ezberdin bat aurkitu behar duzu, normalean jendeak ikusten duenetik ezberdina izan behar du. Kontua ez da Lazkaomendira joan eta handik Txindokiri argazkia ateratzea. Lazkaoko udal-txean argazkigintzako ikastaroa eman genuenean, izan genuen hizketagaia hori izan zen: angulo edo ikuspuntu ezberdina aurkitu behar dela esaten nien, jendeak normalean begiratzen ez duen hori. Eguneko ordu ezberdinak aprobeixatu...

ekarri al duten galdetu diogu Iovori. “Madrildik ez dut ezer ekarri nahi, dagoen lekuan gelditu dadila. Ekarri, ez dakit, gure estiloa. Argazkilariak bere estiloa dauka. Hori baino gehiago ezin da ekarri. Dibertsitatea, zerbait ezberdina.... Estilo ezberdina daukagu, batzuei gustatzen zaie eta besteei ez. Garrantzitsua da aukeratzeko aukera edukitzea”.

“Beti lagunak egiten”

Bulgariara itzuliz, bigarren hiririk handienean bizi izan zen Iovo Bulgarian. “Nire gurasoak, bi herri txikitakoak dira, baina Bulgariako bigarren hiririk handienaren ondoan daude. Haurtzaroan han bizi ginen, lasaiagoak dira eta herri txikiak. Baina gero hirira joan ziren eta bizitza hirian egin dugu”. Bizilekua hainbestetan aldatuta, beti lagunak egiten aritu beharraren sentipena dauka. “Herrian, hirian, Madrilén, eta orain hemen”.

Eta hain zuzen ere, Bulgariatik lagunak hutsunea da gehien nabari duena. “Herrian lagun batzuk nituen, hirian beste batzuk eta kostatu egiten da lagunak egitea. Lagunak egin eta Madrilera. Madrilén berriz ere lagunak egitera. Eta orain berdina gertatzen zait. Niretzako lagunak bizitzaren zutabe dira, beharbada garrantzitsuena. Lagunik ez badaukazu, ez duzu pareririk egiten... gehiena faltan

botatzen dudana horixe da. Bestela, esaten dizut; Goierri, hango paisaiaren parekoa aurkitu dudanez, oso gustura nago”, zehaztu du Iovok.

Goierri, lagunak egitea ote den galdetu diogu. “Norberaren arabera dago. Euskadiko mitoak ez dira egiak. Nik uste dut leku guztietan lagunak egitea erraza dela, norberaren arabera dago. Bilatzen baduzu aurkituko duzu. Etxera ez zaizkizu bila etorriko. Erraza da, jende gehiena umoretsua da eta parrandazaleak direnez, errazagoa da. Dendan egoteak ere laguntzen du eta Maizpidek ere bai. Euskara ikastera joaten naiz Maizpidera”.

Euskaraz egin diogu hurrengo galdera, ea zer moduz moldatzen den euskararekin. “Ondo, pixkanaka-pixkanaka”, erantzun digu euskaraz. “Zaila iruditu zait baina denbora kontua dela iruditzen zait. Eta niri denbora falta zait. Hizkuntza bat ikasteko hitz egin behar da. Dendara datozenekin, euskaraz hasten naiz baina dakidan guztia esateko, urruti nago”, erantzun digu gaztelaraz. Hurrengo elkarrizketa euskaraz egitekotan gelditu gara.

Gero eta gutxiago joaten da Bulgariara, bi urtean behin edo. “Gu adinean aurrera goazen heinean, Bulgarian gero eta familia gutxiagoa daukat”.

Urte bukaera arte dago erakusketa Ordiziko D'elikatuz gunean

Espezien mundua

Antzinatik erabili eta negozioa egin nahi izanda espeziekin. Erdi Aroan hartu zuten garrantziak bultzatuta ordea, garaiko herri ahaltsuenek ekialdeko espezia lurraldeetara bideak ireki eta merkatua bereganatzea izan zuten helburu. Testuinguru honetan kokatzen dira Andres Urdaneta ordi-ziarraren bidaiak Moluka Uharteetara. Bera izan zen, hain zuzen ere, Europa espezien paradisia zen Asiarekin, Itsaso Barea eta Amerika tarteko, lotzeaz bukatu zuena.



Espezia hitza Europan XII. mendearen bukaera aldera azaldu zen. Latinezko jatorrizko 'species' hitzak ezaugarri bereziko produktu asko izendatzen zituen, garia tarteko. Espezia eta aho gozagariak besteetatik bereizteko "aromatiko" izenlaguna gehitu zitzairen.

Teknikoki, egun, espezia bezala hartzen dira hainbat landare aromatikoren hazi edo azala eta beraien sustrai, kimu, lore edo baiak. Hauez gain, beraien ezaugarri bereziengatik, "belar aromatiko" izenpean, trataera berezia dute beste hainbat belar eta beraien hosto lurrintsuek. Gaur egun gehienbat jakiak ondu, gorde eta hainbat plater maneatu eta prestatzeko erabiltzen diren arren, espeziek historian zehar eragin

magikoa izan dute gure gizarzteetan. Kolore, usain eta zapore deigarri eta bereziek gure zentzumenak bizitzeaz gain, askoren ezaugarri antiseptikoak direla eta, jaki ugariren biziraupena luzatzeko eta zapore eta usain txarrak moztortzeko erabili izan dira. Honekin batera, espezia batzuk sendagarri eta botika moduan erabiltzeak eta askori loturiko ustezko ezaugarri miragarriek, altxorrik preziatuenetarikotan bihurtu izan dituzte.

Altxorraren bila

Antzina, babiloniar, egiptiar, feniziar, greziar eta erromatarrek, besteak beste, modu ezberdinetan eta helburu ezberdinetarako erabiltzen bazituzten ere, europar gehienentzat ezkutuko misterioa zen espezia harri-

garri hauen jatorria. Horren testigu dira Marco Polo eta antzekoen bidaiak miragarrien kontakizunak.

XII. mendetik aurrera, gurutzadek bultzaturik, mendebalde ekialdearekin harreman zuzenean sartu zen eta ekialdeko eta Venezia eta Genoako merkatariek irekitako komertzio bideek gerturatu eta gizarteratu zituzten espezia preziatu hauek Europan.

Veneziar eta genoarren monopolioak, hain zuzen ere inperio otomandarra zabaltzeak Asiako bidea zailduz eta espezien prezio izugarriek, garaiko Europako herriko indartsuenak, Gaztela eta Portugal kasu, espezien lurraldeetara bide berriak irekitzera bultzatu zituzten. Honela, XV. mendean, musulmanen aurkako

kanpainak bukatu ondoren, portugaldarrek lehenik eta gaztelarrek ondoren, beren baliabide eta indar gehientzuen bide berri hauek irekitzera bideratu zituzten. Portugaldarrek ekialderantz, afrika inguratuz Indiarako eta handik Ekialde Urrunera zeraman bidea ireki asmoz, eta gaztelarrek mendebalderantz, atlantiko zeharkatu eta 2.600 mila eskasetara Cipango (Japonia) ospetsua aurkituko zutelakoan. Portugaldarrek, Vasco de Gama bitarteko, Indiarako ekialdeko bidea laster ireki bazuten, gaztelarrek kontinente berri batekin topo egin zuten eta ozeano berri bat zeharkatzeko premiarekin horren gutiziatuak ziren Espezien Uharteetara (Moluketara) iritsi ahal izateko.

Azkenean Magallanes eta Elkano Ameriketako hego muturra zeharkatuz aspaldian amestutako Moluketara iritsi baziren ere, Andres Urdaneta izango zen Asiatik Ameriketara, Ozeano Barea mendebaldetik ekialdera zeharkatuz, itzule-ra bidea egiteko modua aurkituko zuena, Gaztelarentzat behin betikoz Espezien Uharteetarako eta ekialderako bere bide komertzial propioa irekiz. Bide honek Manilako Galeoi ospetsuari ateak ireki zizkion eta XIX. mendearen hastapenera arte Asia, Amerika eta Europaren arteko truke komertzial eta kultural garrantzitsuenari hasiera eman zion.

XVII. mendez geroztik holandarrak nagusituko dira altxor preziatu hauen komertzioan, nahiz eta beranduxeago ingelesekin elkarbanatu behar izan nagusigo hau.

XVIII. mendez gero hirugarren herrialde bat gehitu zen komertzio garrantzitsu honetara: Frantzia. Moluketatik ezkutuan espezia garrantzitsuenen sustraiak eraman eta bere lurraldeetan landatuz potentzia berri bezala agertu zen espezien merkatuan. Honek guztiak, espezien monopolioaren amaiera ekarri zuen XIX. mendean eta ondorioz prezioen gainbehera, espezien gizarteratze zabalagoa eta beraien komertzioak zekar-

tzan irabazi izugarrien murriztea. Egungo espezien komertzioa, antzinako gatazka odoltsuak nolabait atzean utzita, herrialde eta enpresa ekoizle bitartekari eta kontsumitzaileen arteko gauza izatera pasa da. Gaur egun espeziak mundu guztian kontsumitzen diren arren inportatzailearik handienetakoak AEB, Frantzia, Japonia edo Alemania bezalako herrialdeak dira eta esportatzailearik garrantzitsuenetakoak Singapur, Hong Kong, Madagaskar, Tanzania edo Indonesia.



Bitxikeriak

● **Piperbeltza:** Egun oso estimatua den gozagarria izan arren, antzina trukerako moneta baliagarri ere bazen. Honela gertatu zen ia Erdi Aro osoan zehar. Giltzapean gordetzen zuenik ere bazen, izan ere pertsona baten aberastasuna piperbeltzetan neurtzeraz ere iritsi baitziren. Alemanian aberatsei "piperbeltz poltsa" deitzen zuten eta Ingalaterran, XI. mende hasieran, barkuek portusaria piperbeltzetan ordaindu eta alokairuak piperbeltz ale baten trukearekin irudikatzen zuten. Denbora pasa ahala ordea, bere balioa galdutuz joan zen txiroenen espezia bihurtzeraino.

Erabilera hauez gain, oinarriak izan ala ez, hainbat erabilera eta sinesmen lotu izan zaizkio piperbeltzari. Honela, afrodisiako, pizgarri, lasaigarri, diuretikoa, nahiz aneurisma, buruko min, amorreria edota sifilisa bera ere sendatzeko balio zuela uste izan da.

● **Iltze-belarra:** Gehien estimatu eta ordaindu den espeziatarikoa izan da, kilo 7 g. urre kostatzen zena. Historian zehar hainbat ezaugarri berezi uste izan zaizkio. Besteak beste, hortz-oiak iltze-belarrez igurtziz gero buruko mina arintzen zuenaren ustea. Garai batean, gizon inpotenteek iltze-belarrez gozaturiko esnea hartuz gero beraien gizontasuna berreskuratzen zutenaren ustea ere izan zen. XVI. mendean mediku alemaniar ospetsu batek zirkulazio txarra eta hanka hotzak osatzeko burua iltze-belar txikituz estaltzea gomendatzen zuen.

● **Intxaur muskatu edo banda:** Indiar eta txinatarrek erakutsi zieten intxaur muskatua arabiarrei eta hauek izan ziren Europan zabaltzen zutenak. Bertan, hazia eta loreak ukenduak, perfumeak, xaboiak eta xanpuak egiteko erabiltzen ziren. Asiarrek ordea, bronkiek infekzio eta erreumaren aurka erabiltzen zuten eta medikuntza tradizionalan nerbio sistema eta digestio aparatuen gaixotasunei aurre egiteko. Erdi aroan izurria ekiditeko baliagarri zenaren ustea ere zabaltzen zen.



zuhaizki
S A
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurritan.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA


- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia



etxekin

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA


zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA




Ordiziako Tabernarien partetik

Euskal Jai zoriontsuak

quztioi!





Ordizia

Euskal jaiak

Irailaren 5ean, ostirala: Musika aitzaki.

19:00etan: Herriko kaskoan kalejira Mexikoko Jalisko Estatuko Ballet Folklorikoaren eskutik.

20:15ean: Eliz Parrokian Toulouse-ko 'Les sacquebottiers' taldearen kontzertua.

22:15ean: Plaza Nagusian, Mexikoko Jalisko Estatuko Ballet Folklorikoaren 'Gora Jalisco' ikuskizuna.

Irailak 6, larunbata:

11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era: Haurrentzat parkea puzgarriekin, Beti Alai Pilotalekuan.

19:30ean: Erraldoien Alardea.

22:15ean: Plaza Nagusian, Prefosta taldearen kontzertua, 'Euskal Kantagintza' ikuskizunarekin.

Irailak 7, igandea: Jubilatuen eguna:

9:00etan: Goiz eresia trikitilarien eskutik.

11:00etan: Meza Nagusia.

14:15ean: Jubilatuta eta pentsiodunen bazkaria Beti-Alai pilotalekuan.

Segidan, dantzaldia orkestra batez alaitua.

Irailak 8, astelehena:

19:00etan: Herri Antzokian, Mikel Urretabizkaiaren 'Urdanetaren sekretua' dokumentalaren emanaldia.

Irailak 9, asteartea:

17:30ean: Plaza Nagusian, 'Bertako produktuekin egindako Elkartearen arteko XVIII. Sukaldaritza Lehiaketa' eta 'Goierriko odolki onenaren XIV. dastaketa-lehiaketa'.

18:30etan: Plaza Nagusian Buruhandi eta Erraldoien irteera, trikitilariak eta txarangak lagundurik.

Irailak 10, asteazkena (azoka berezia):

Egitara hurrengo orrian.

Irailak 11, osteguna:

17:00etan eta 19:30ean: D'Elikatuz zentroan, Idiazabal Gazta desberdinen dastatze gidatua. (Derrigorrezkoa aurrez D'elikatuzen izena ematea).

Irailak 12, ostirala:

22:15ean: Plaza Nagusian, 'Mielotxin' taldearen folk kontzertua.

Irailak 13, larunbata:

11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara: Haurrentzat parkea puzgarriekin, Beti Alai Pilotalekuan.

19:00etan: Euskal dantzen erakustaldia herriko kaskoan Alkarkide (Alkartasunako dantzari ohiak) taldearen eskutik.

19:00etan: Plaza Nagusian, 'Sagardo-festa', sagardoaren dastaketa.

22:30ean: Herri Antzokian, Bertso-trama. Gaia: Andres Urdaneta. Bertsolariak: Jon Maia, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Tramagilea: Josu Goikoetxea.

Irailak 14, igandea:

12:00etan: Barrena kultur Etxean, Lazkao-Txiki XVII. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

HERTZA taberna

Goizeko 6etatik irekita

- ◆ Eguneko menua
- ◆ Pintxoak
- ◆ Plater konbinatuak

Euskal jai zoriontsuak guztioi!

943 160 471
Rezola kalea z/g
ORDIZIA

borja de la

Euskal jai zoriontsuak denoi!

Kortinak,
alfonbrak,
etxeako arropak
Estoreak eta panel japonesak

Tel.: 943 880 432
Plaza Nagusia, 4
ORDIZIA


ZIFI ZAPE



ondo pasa euskal jaiak!

Umeen arropa denda

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13 ORDIZIA



MUJICA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Irailak 10, asteazkena: azoka berezia

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakusketa eta lehiaketak.

Goizean: 'Euskal Herriko kalitatezko jaki eta edariak ikusgai: Elikadura osasuntsua, bertakoa eta kalitatezkoa' argitalpena banatuko da. Tokia: Joxe Miel Barandiaren enparantza.

12:00etan: Joxe Migel Barandiaran plazan, fruta, barazki eta perretxiko lehiaketen sari banaketa.

12:30ean: Garagartza plazan, ganadu eta lumagorri lehiaketen sari banaketa. Segidan, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.

13:00ean: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari-banaketa.

17:30ean: Beti-Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuzko pilota partidak: 1. partida: Mendizabal-Oteiza / Olaetxea-Escudero. 2. partida: Bengoetxea VI-Begino / Olaizola II-Beloki.

19:30ean: Jose Migel Barandiaran plazan, Urrezko Aizkolari Txapeldunaren Liga 2008. Aizkolariak: Floren Nazabal, Jose Mari Olasagasti eta Angel Arrospide. Harri-



jasotzailea: Mieltxo Saralegi.

Egun honetan ordiziarrei baserritar jantziz kalera ateratzeko deia egin nahi die udalak.



Arropa eta Osagarriak

Tel.: 943 88 46 62
Garagartza plaza, 9
Ordizia

Haurdunentzat Arropa

Tel.: 943 16 21 35
San Inazio, 6
Beasain

Mutiloa

Lierniko festak

Irailak 6, larunbata:

17:30etan: Ume jolasak.

21:00etan: Auzo afaria, Mujika jatetxean. Ondoren, Garikoitz Lizarraga eta Inaki Larrañagaren trikitixa saioa.

Irailak 7, igandea:

Goiz eresia Segurako txistularien eskutik.

09:30etan: XXVII. Lierniko Txirrindulari proba (gazte maila), Lierniko Txirrindulari elkartearen eskutik.

13:00etan: Meza Nagusia.

13:15etan: Toka lehiaketa.

Eguerdi partean Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

18:30etan: Herri kirolak, idi probak. Patxi Aranberri, Egoitz Armaolea eta Imanol Retegi.

Ondoren: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

Irailak 8, astelehena: Lierniko Andre Mari eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Egun osoan, erromeria Elustondo anai-arreba trikitilariaren eskutik.

Beasain

Pirritx eta Porrotx

Irailaren 20an, Chernobileko haurren alde, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Eskerrik asko' ikuskizuna eskainiko dute, bi saiotan, Antzizar kiroldegian. Bata, 16:30etan eta bestea 18:30etan. Sarrerak aurrez eros daitezke, 6 euro-tan, Beasaingo eta Ordiziako Lirain lurrindegietan.

Beasain

Igartza auzoko jaiak

Irailak 5, ostirala:

19:00etan: Txupinazoa. Ondoren buruhandi eta txistulariak.

20:00etan: Ardo eta txistorra dastaketa.

20:30etan: Kike Biguriren bakarriketa ardo dastaketan.

21:00etan: Antzerkia.

22:00etan: Txapel jautiketa txapelketa.

22:30etan: Kontzertuak: Las Sfinders (Hondarribitik) eta The Foralettes (Iruñatik).

Irailak 6, larunbata:

11:30etan: Marrazki tailerra. Oka jolasa eta hamaiketakoa.

Arratsaldean zehar: Merkatu txikia.

15:00etan: Futbito txapelketa kiroldegian

16:00etan: Mus txapelketa.

17:00etan: Haur jolasak: toka eta igela.

19:00etan: Malabare/pailazo ikuskizuna.

20:00etan: Triki bertso poteoa.

21:30etan: Mozorro afari herrikoia.

22:30etan: Guatekea.

02:00etan: Nass One DJa.

Irailak 7, igandea:

11:30etan: Altxorraren bila.

13:00etan: Txakolin dastaketa.

17:00etan: Herri kirolak.

19:30etan: Buruhandiak eta txistulariak.

22:00etan: Agurra.

**JULIAN MUJIKA**

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 10 ☎ 943 88 01 96 BEASAIN



☎ 943 888 646

Igartza Oleta, 12

BEASAIN



Harategi - Urdaitegia

Festa onak pasa!

Saltsamendi



LOTO PRIMITIVA

1 X 2

Festa onak pasa!

☎ 943 08 61 62

Igartza Oleta, 12

BEASAIN

ANZIZAR

T A B E R N A

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17

BEASAIN

Beasain

Beasainmendiko jaiak

Irailak 6, larunbata:

21:00etan: Herri afaria eta auzoko mus txapelketa.

Irailak 7, igandea:

08:00etan: Suziriak.

11:00etan: Herri meza trikitilariekin eta bertsolariekin.

11:30ean: Kros herrikoia.

11:45ean: Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongi etorria.

12:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak.

Ondoren: Bertsolariak: Mikel Mendizabal eta Amets Arzallus.

13:00etan: Aurtengo agure omenduari, Juan Jose Ur-dangarini, oparia emango zaio.

Ondoren: Jokinen oroimenean aureskua eta lore eskaintza.

13:30etan: Herri kirolak: Aizkolariak: Iñaki Azurmendi, Jose Mari Olasagasti, Arkaitz Jauregi eta Xabi Dorronso-ro. Harrijasotzailea: Juan Garmendia 'Antxamendi'.

14:30etan: Bazkari herrikoia.

17:00etan: Haur joiasak.

18:30etan: Erromeria Laja eta Mikelekin.


Usurbeko krosa

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Beasainmendiko festaren barruan, kros herrikoia jokatu da, irailaren 7an. Artzain Enea tabernatik atera eta Agortaraino, ia bost kilometroko igoera egin beharko dute korrikalariak. Zehatz esateko, 4,7 kilometro. Goizeko 11,30etan izango da irteera ordua. Egunean bertan, 10,15etatik aurrera, izena emateko aukera egongo bada ere, antolatzaileek izena aurrez ematea eskatzen dute. Honela, izena aurrez ematen dutenek, 6 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean bertan egiten dutenek, 10 euro. Antolatzaileen telefono zenbakia: 615741620.

Sariei dagokienean, 120 euro daude zain, gizonetzkoentzat eta emakumezkoentzat. Bigarrenek eta hirugarrenek, 90 eta 60 euro jasoko dituzte. Juan Mari Garin korrikalariak daukan marka hobetzen duenarentzat, hau da, 21 minutu eta 24 segundu baino lehen iristen denarentzat, 90 euroko saria egongo da. Emakumezkoen marka, Amaia Insaustik du, 25 minutu eta 58 segundu. Herriko korrikalari bizkorrenentzat, zapatilak eta bazkaria izango dira.

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XIII. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 21 ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka

Arratsalde: erromeria lehengo erara

Egun osoz: erakusketa eta tailerrak

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestib.es





Zerain

Azoka ekologikoa irailaren 21ean

Udazkenarekin bat, irailaren 21ean, goizeko 9etatik 14:00etara, Zeraingo herriko plazan, XVI. Azoka ekologikoa izango da. Produktu ezberdinak salduko dituzten 20 postu egongo dira: barazkiak, txerriak, ogia, eztiak, gazta, kosmetiko naturalak, ardoa, sagardoa, tinte naturalekin egindako jantziak, olioak, baratzeak, landareak, gozoak... Artisauek ere izango dute lekua azokan. Biolurreko informazio postua bertan izango nekazaritza ekologikoari buruzko informazioa zabaltzen. Xapre tritilariek alaituko dute azokako giroa.

Aurten sagardoaren inguruan egingo da azoka, sagarren garraioa gurdiz eginez, sagardo sagarren erakusketa ezarritik eta dolare batekin sagardoaren prozesua erakutsiz.

Lixiba erakusketa ere egongo da eta baita barrikagile bat ere. Goiza borobiltzeko sagardo ekologikoaren dastatzea egingo da aditu batekin, eta txikienentzat kandela eta gozogintza tailerrak egongo dira.

Arratsalderako berriz, urtero bezala, idi dema eta aizkolari saioa antolatuko da.

Zerain

Kultur astea

Irailak 12, ostirala:

19:30etan: Bideo emanaldia: 'Andramari jaiak 2008'.

Irailak 13, larunbata:

Zeraingo eskolaren 25. urteurren festa:

Goizean, haurren eta gazteen jolasak. **Eguerdian:** Eskolaren 25. urteurrenko ekitaldia, plazan. **Ondoren:** triki poteoa eta herri bazkaria plazan. **18:00etan:** antzerki emanaldia: 'Sommer jaunaren istorioak', Elizan.

Irailak 14, igandea: Jubilatuen eguna.

13:00etan: Meza Nagusia bertsolariek lagunduta.

Ondoren: Jubilatuen bazkaria Ostaturun bertsolariekin.

Irailak 15, astelehena:

20:30etan: Zeraingo toponimiari buruzko hitzaldia Jose Luis Ugartek, Kultur Etxeko areto nagusian.

Irailak 16, asteartea:

20:30etan: 'Web 2.0. eta auzolana', hitzaldia Mikel Madinak, Kultur Etxeko areto nagusian.

Irailak 17, asteazkena:

20:30etan: 'Gerriko eta gerri buelta' hitzaldia Mikel Zalbidek, Kultur Etxeko areto nagusian.

Irailak 18, osteguna:

20:30etan: 'Goierriko dantzak' hitzaldia Mikel Sarriegik, Kultur Etxeko areto nagusian.

Irailak 19, ostirala:

20:30etan: Goierriko dantzen erakustaldi-emanaldia Beasaingo dantzariak, elizan.

Irailak 21, igandea:

Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren XIV. azoka:

9:00etatik 14:00etara: Azoka, kale animazioa, artisau postuak, eta abar.



Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

Lazkao

Iraileko ekintzak Mazpiden

Irailak 17, asteazkena:

21:00etan: Txalo taldearen 'Bota patsa' antzezlan, Maizpideko zinema aretoan.

Irailak 18, osteguna:

21:00etan: Hitzaldia Andoni Egañaren eskutik: 'Ahoz-kotasuna', Maizpideko zinema aretoan.

Irailak 25, osteguna:

20:00etan Bertso afaria, Anjel Mari Peñagarikanorekin eta Jesus Mari Irazurekin, Maizpideko jangelan.

Itsasondo

Urkiko jaiak

Irailak 13, larunbata:

20:00etan: Suziri jaurtiketa jaiei hasiera emateko.

21:00etan: Lagunarteko afaria elkartean.

23:00etan: Laja eta Mikel trikitilariak goizaldera arte.

Irailak 14, igandea: Gurutze Deunaren eguna:

10:00etan: Meza nagusia.

11:00etan: Hamaiketako Olarte Anaiak trikitilariekin.

14:30etan: Bazkaria.

18:30etan: Herri kirola. Aizkoran, Olasagasti, Arrospide, Azurmendi eta Ugarteburu; eta bi neska trontzan, mo-tozerra baten aurka.

20:00etan: Olarte Anaiak trikitilariak.

Larunbateko afarira edo igandeko bazkarira joateko, deitu aurretik irailak 12 ostiralera: 943 88 84 18.

Itsasondo

Herriko festak irailaren 19tik 21era

Irailak 19, ostirala:

17:00etan: Zinta karrera, Ginkana eta abar...

19:30ean: Itsasondo-Aramaren futbol derbya.

21:30ean: Herri afaria, ondoren dantzaldia Tapia eta Leturiaren eskutik.

Irailak 20, larunbata:

9:00etan: Goiz eresia.

11:00etan: Altzagaratera igoera

11:00etan: Altxoraren jokia.

13:00etan: Paella prestaketa.

18:00etan: Herriko olinpiadak.

20:30ean: Afari merienda enparantzan eta ondoren moztarroak izango ditugu herriko enparantza nagusian.

22:30ean: Dantzaldia 'Norekin dantza' taldearekin.

Irailak 21, igandea:

9:00etan: Goiz eresia.

11:00etan: Puzgarriak eta haurrentzako antzerkia.

12:00etan: Hamaiketako izango dugu udaletxe azpian.

13:00etan: Herri kirolak.

14:30ean: 'Kuxkuxtu' taldeak alaituriko bazkaria.

16:30ean: Puzgarriak eta haurrentzako tailerrak.

17:30ean: Herriko enparantzan mus, toka eta partxisean jokatzeko aukera izango da.

18:00etan: 'Kuxkuxtu' taldearen musika emanaldia izango da enparantzan.

18:30ean: Txirrindu lehiaketa; haurrentzako kriteriuma.

20:00etan: Sagardo dastaketa.

Esperientziaren eskola

IRAUPENA

Urritik ekainera.

Astean hiru egunetan (asteartea, asteazkena eta osteguna).

Egunean hiru ordu goizez (10etatik 13etara)

IZENA EMATEKO


Goiekiren bulegoetan, Ordiziako Industrialdeko 18. pabiloian.

Tfnoa: 943 16 15 37. Goizeko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara.

Antolatzaileak:



Kolaboratzaileak:



kutxa

goierrikohitza.**iragarki**laburrak.com



www.iragarkiaburrak.com
uztarria.iragarkiaburrak.com
txintzarri.iragarkiaburrak.com
otamotz.iragarkiaburrak.com
elgoibarren.iragarkiaburrak.com
soraluze.iragarkiaburrak.com
bidasoamedia.iragarkiaburrak.com

ukberri.iragarkiaburrak.com
oarsoaldeko hitza.iragarkiaburrak.com
tolosaldeko hitza.iragarkiaburrak.com
11barri.iragarkiaburrak.com
urola-kostako hitza.iragarkiaburrak.com
irutxuloko hitza.iragarkiaburrak.com
busturialdeko hitza.iragarkiaburrak.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

jarri zure
iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.



Gabiriko sendia 1925 inguruan

Argazkian Gabirizar Haundi etxeakoak ageri dira 1925 inguruan

Goian ezkerretik eskuinera: Maria Peñagarikano eta Francisco Peñagarikano.

Behean: Mari Cruz Telleria (ama), Jesusa Peñagarikano, Joakina Goia (amona), Domingo Peñagarikano eta Juan Jose Peñagarikano (aita).

Gure helburua,
zure ongizatea.

XVIAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com

Olagi

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Sagardotegia
Jatetxea

Karta

Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

2008-2009 ikasturtea

Irailean ikastaro trinkoak:
mekanografia eta ikasketa teknikak

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza,
Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate,
mintza praktika




E W M E

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA *Salvatore Ferragamo* EXTRE ROMEO GIGLI



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik